



XABIER LETONA

## Nafarroakoaren alde eta ikurrinaren aurka

Xabier Letona

@xletona

Nafarroako eskuinak bazuen kalera ateratzeko gogoia aldetaren Gobernuaren aurka, larunbatean oso argi ikusten zen hori Iruñean. Nafarroako banderaren defentsa izan da aitzakia, baina herene-gun zuzeneko aipamenik izan ez bazuen ere, funtsean ikurrinaren aurkakoa zen. Manifestazioa hainbat kolektibok deitu zuten eta nagusiki UPNk mugitu ditu hariak atzetik, bai antolaketan bai herritarrak mobilizatzerako orduan. Edozein kasutan, jende asko bildu zen Iruñean: antolatzaileen arabera 22.000 eta 25.000 pertsona artean, Espainiako Gobernuaren ordezkariak 23.000 aipatu zituen; Udaltzaingoak 15.000, *Diario de Navarra* "hamarnaka mila", *Diario de Noticias*-ek 15.000 eta *Garak* 16.000.

Nafarroako Legebiltzarrak 2003tik indarrean egon den Sinboloen Legea bertan behera utzi duenean etorri da haserre, aurrerantzean ikurrina ere egon ahal izango delako Nafarroako eta Espainiako banderekin batera. Inork ez du zalantzan jartzen Nafarroako bandera, baina hala ere "Nafarroako bandera defenda dezagun [gaztelaniaz]. Gurea defenda dezagun [euskaraz]", zioen pankarta nagusiak. Gorritz jantzita joan ziren herritar asko eta parte-hartzaileek

ehunka Nafarroako bandera eraman zizuten. Zeharka Espainiako banderari begira, antolatzaileek bereziki azpimarratu zuten Nafarroako bandera bakarrik eramateko deia, eta nagusiki hala izan zen, baina ezin izan zuten guztiz saihestu eta dozena bandera espainiar ere ikusi ziren ibilbidean zehar.

Esperpentorako irudiak ere ikusi ahal izan ziren, Nafarroako banderaz estalitako gazte batek bere burua txistorra batekin zigortzen zuenean edo amaierako ekitaldian eszenatokitik Mikel Laboaren *Txoria txori* abestu zutenean, baina txoria hitza Nafarroa bihurtuz "...ez zen gehiago Nafarroa izango, eta nik Nafarroa nuen maite".

Une garrantzitsu guztietan UPNk PSN-ren laguntza izaten du, eta orain ere bai. Ez da erraza Maria Chiviteren alderdiaren jokaldia ulertzea. Eskuinaren arimura aritzeak inoizko ordezkari itzuzitua txiki inoizko ordezkari itzuzitua erakartzen dio eta orain ere manifestazioa sostengatzeak barne ika-mikak ekarri dizkio; corralitoaren eta Nafarroa espainiarraren indarra handiegia da oraindik, ez da beste azalpenik.

Nafarrek aldeketa ondo baloratzen dutela diote inkestek legealdiaren erdian. Aldaketaren Nafarroak askoz gehiago behar du, dudarik gabe, baina, desadostasunak desadostasun, alternatiba zein den ikusteak, hauteskudeei begira gutxieneko erronka non den argi erakutsi zuen ekainaren 3ak.

### EKONOMIAREN TALAIAN

## Multinazionalen boterea gelditu



Juan Mari Arregi

Badaude nazioarteko akordio eta hitzarmen batzuk gure eguneroko bizitzari, tokiko ekonomiari eta lan eskubideei eragiten ez dietela diruditenak, auskalo non sinaturik daudelako. Herritarrek paso egiten dute, ez baitira jabetzen hitzarmen horien eduki eta ondorioez. Horixe gertatzen da CETArekin, Europar Batasuna eta Kanadaren arteko merkataritza libreko tratatua; honen bidez gure egunerokoan eragina izango duten hainbat lege onartuko dira. Euskal Herrian haren defendatzaile diren alderdiek -EAJ, PSE, PP eta UPN- behin eta berriz errepikatzen digute herritarrentzat onuragarria izango dela ekonomia sustatu eta enpresa txiki eta ertainak lagunduko omen dituelako. Benetako helburua, ordea, multinazional eta korporazio handien mesederako araudia sortzea da.

Akordio horiek kapitalismoan sakontzen dute, eta mugak jartzen dizkiete herrien subiranotasunari, enpresek estatuak baino botere eta eskubide gehiago izango baitute. Gure elikadura kalitatea eskastuko da; merkataritza txikia eta tokiko baserriarren jarduna birrindu; ingurumenean eta osasunean kalteak sortzen dituzten enpresei atek irekiko dizkiete, Kanadan meatzaritza sektorean gertatu den bezala; nolabait, Trumpekin akordioa egitea ere bada, azken batean merkatu horiek erabat lotuta baitaude; eta eskubide laboral eta sozialak murriztuko dira enpresen etekinak handitzeko.

Egoera horretan, hitzarmena berretar delako, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak hainbat mobilizazio deitu ditu aste honetan haren kontra. Egiaz, halako akordio kaltegarriaren aurrean, euskal mugimendu sozialek eta komunikabide aurrerakoiek indar handiagoz egin beharko lukete lan, herritarrek ez baitute sarbide zehatz eta nahikorik izan CETA izenez ezagutzen dugun horrek izango dituen ondorioez.